



«Teknopertsona gazteek emantzipatu behar dute, gehiegikeriak saihestu»

Javier Etxeberria Ezponda
Filosofoa • 8

ASTEARTEA, 2016KO URRIAREN 18A • XIV. URTEA • 4.136. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS

1,40 EURO



Bertsioen borroka

Karguekin aske utzi dituzte larunbatean Altsasun atxiloturiko bi gazteak; guardia zibilek senda-agiriak jaso dituzte • Altsasuko talde batek polizien «azpijokoa» salatu du; oposizioak laukoa kritikatu du parlamentuan • 2

MANAQUA/ EFE

Harian

2

Eusko Legebiltzarreko presidente izango da Tejeria beste lau urtez

PP mahaitik kanpo geldituko da, eta EAJk bi kide izango ditu. Kargu guztiak ez dituzte adostu. • 4

Basaurin 30 postu sortu eta 35 milioi inbertitzeko asmoa du Sidenorrek

Berrikuntzak egingo ditu altzairu instalazioetan, laminazio trenean eta altzairu totxoak berotzeko labeetan. Lantegia modernizatu nahi dute, produktua hobetuz enpresa lehiakorrago egiteko. • 12

Kirola

21

«Banuen eskaintza bat jarraitzeko, baina fisikoki eta psikologikoki ez neukan mailarik baiezkoa emateko»

Xabi Zandio
Skyko txirrindularia • 22



2 Eibar
3 Alaves



Eibarren bizkarretik eskuratu du Osasunak ligako lehen garaipena

Galtzen hasi, baina gorritxoek irabazi dute bi taldeek Lehen Mailan jokaturako lehen derbia. • 24



Pexmerga kurduak, Mosul hego-ekialdean. Hiria hartzeko erasoa hasi aurreko hilabeteetan, inguruko herrietan borrokan aritu dira Elrekin. ANDREA DICENZO / EFE

Mosuldik El egoztera

Irakeko soldadu eta pexmerga kurduak operazio militarra hasi dute Estatu Islamikoaren aurka, AEBen sostenguearekin • 14

Arantxa Iraola Donostia

Dituen zuztar «multiplez» mintzatzea gustatzen zaio Javier Etxeberria Ezpondari (Iruñea, 1948). NARBART (Nafarroa) aipatzea: «Nire aitak, bi anaiarekin batera, handik aldegin zuen Mexikora. Afrikako gerratik ihesi ari ziren». Mexiko: «Hantxe ikasi nuen hitz egiten. Nire hitz egiteko eran ukitu bat geratu zait». Donostia: «3 urte nituenetik 12 urtera arte han bizi izan nintzen». Ikasketetan ere, adar bi lotu zituen: batera ikasi zituen matematikak eta filosofia. Eta filosofo gisara, antzera: pluralismoaren alde usu egin du zientziaren balioren inguruko gogoetetan. Argitasun apartekoa erakutsi du urteotan teknologia berriek ekarritako ezagutza eredu berriek —teknozientziek— eragin dituzten aldaketa sakonei buruzko hausnarketetan. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitateen, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien 2016ko Saria jasoko du gaur, 18:00etan, Donostian, Miramar jauregian. Pozik: «Euskal Herriko sei unibertsitateek eraturako epaimahai batek ematea; horixe da, batez ere, pozgarria». EHUrekin lotura estua du —kargu garrantzitsua izan zuten 1980ko hamarkadan, hastapenetan—, eta lkerbasquen ari da gaur egun. Jakiundeko presidenteordea ere bada, eta arras kutuna du. Seguruenera, batzera egiten dutelako han ere: zientziak, artea eta letrak uztartzera. «Bikaina da».

Hamasei urte dira *Los señores del aire* (Aireko jauntxoak) liburua argitara eman zenuenetik. Mugarriz izan zen. Teknologia berriek eta, bereziki, Internetek zekartzaten aldaketaz mintzatu zinen —eta ehunten ari ziren ingurune berriaz: hirugarren ingurunea deitu zenuen, hain justu—. I. bi hamarkada geroago, zein gogoeta dituzu?

Eutsi egiten diet liburu hartan plazaratutako tesiei: erabat. Hirugarren inguruneaz eta aireko jauntxoek mintzaten jarraitu behar dugu; gaur egun, akaso, aireko jauntxoek ordez, hodeiko jauntxoak direla esango nuke. Okerra ez zen metafora bat proposatu nuen, baina egun hodeiarena egokiagoa iruditzen zait: itxura batean oso ederra da metafora, baina hodei batean ekaizak jazo daitezke, hondamendiak, tifoiak. Hortxe dugu, esaterako, 2008ko hondamendia: finantza hodeiaren emaitza. Eta nik liburua egin nuenean argi eta garbi esan nuen Internet ez zela arazo bakarra: sare telematikoa milita-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI.PRESS

«Ugarituz joango dira aireko jauntxoak aurkako matxinadak»

Javier Etxeberria Ezponda • 2016ko Eusko Ikaskuntza saria

Milurteko berrira teknologia berriek ekarri dituzten aldaketa sakonen inguruan adierazitako gogoetek eta ohartarazpenek egin dute, batez ere, ezagun. Mundu berria ulertzeko gakoak eta metaforak eman ditu. Gaurko filosofoa da: geroari so.

ren eta finantza arlokoen inguruan ere ohartarazi nuen. Hirugarren ingurunea askoz ere gauza zabalagoa zela azaldu nuen, eta agerian geratu da hori urteotan. Argi adierazi nuen, halaber, ingurune hori kolonizatzen ari zirela ingurunearen inguruan; Microsoft zen, esaterako, garai hartan garrantzitsuenetakoa bat.

Eta kolonizazio hori nola handitu den ikusi da ordutik...

Izugarria izan da; kolonizazio prozesua bera, eta baita aireko jauntxoek teknologia berrien inguruko erabiltzaileen kontrola eskuratzeko beren artean izan duten lehia ere. Izugarri handitu da hori guztia: nik liburua idatzi nuenean, esaterako, sake-

lako telefonoak oso urriak ziren, baina hori aldaketa handia izan da, eta aireko jauntxoek erabiltzaileen inguruan egiten duten kontrola asko handitu du horrek. Sare sozialean ere antzeko zer bait jazo da: Facebook, Twitter eta gainerakoak komunikaziorako eta interakzioarako espazioak dira, baina aireko jauntxoek era-

bateko kontrola dutenak. Atera kontuak: erabiltzaileek sarera igotzen duten guztiaren jabe edo jabeakide bihurtzen dira. Aireko jauntxoek enpresak erabiltzeko egiten diren onartzen dut guztiek, nolabait ere, berekin dakarte erabiltzaileak jauntxo horien jopu izatea. Izan ere, nora joango zara kontu eske? Silicon Valleyko konderritik bateko auzitegi batera? Umberto Ecori segika, *neofeudalismoa* kontzeptua hartu nuen nik hori guztia adierazteko; orduan argi ikusten nuen, eta, orain, argiago. Eta harago eginez, kontzeptu berri bat hipzide dut orain: teknopertsona. Izan ere, hirugarren ingurunean teknopertsonak garatu dira, beste egitura mota bat. Pertsona fisikoak dira oraindik ere, juridikoak, baina horien gainean beste identitate bat agertu da; identitate hori, ordea, aireko jauntxoek ematen dute. Arauak haienak dira.

Gehienetan, ia inork ere ez daki nor diren jauntxo horiek, ezta?

Teknopertsonak direlako haiak ere. Jakina, ez dute aurpegirik, ezta izaera juridikorik ere. Hortxe dugu Google, identitate asko ditu, eta hori da teknopertsonen ezaugarrietako bat. Eta, hain justu, hirugarren inguruneak eraldatu egin du pertsona kontzeptua bera. Ikusizunak eraldatu ditu, hedabideak, politika, eta, aurrera egin ahala, gure identitateak ere bai. Egun, XXI. mendean bizi den pertsona batek teknopertsona izaten ikasi behar du. Ibiltzen ikasi behar du, korrika egiten, pertsona izaten, hizkuntza batean mintzatzeko... Baina teknopertsona izaten ere ikasi behar du. Benetako erronka bat da, alor askotatik aztertu beharrekoa, gainera: zein diren teknopertsonaren eskubideak eta erantzukizunak.

Teknologia berriek informaziorako bide berriak ekarri dituzte. Desinformazioa ere handitu da?

Bai, zarata handia dago. 1999an, nik ez nuen hain argi; baina orain ikusi dut nolako garrantzia duten emozioek hirugarren ingurune horretan. Aireko jauntxoek arrakastaren gakoa ez dago ematen duten informazioan, baizik eta sortzen dituzten emozioetan. Eta aireko jauntxoek ez zaie batere inporta zarata sortzea; are gehiago: zenbat eta zarata gehiago, hobeto. Whatsappen pentsatzen ari naiz, esate baterako. Zarata dagoela? Milioika lagun emotikonoak bidaltzen ariko direla esan nahiko du horrek. Emotikono bakoitzeko zentimo bat? Diru gutxi da. Baina milioi bat lagun ari badira horretan, erabilera masiboa bada, diru asko eskura dezakezu.

